



Sebastian
Manuel
Mendiburu

1708-1782

BIDeGILEAK

Egilea:
Elixabete Perez Gaztelu



SEBASTIAN MANUEL MENDIBURU

(1708-1782)


Eskuzabala eta apala

Sebastian Manuel Mendiburu Olano 1708ko irailaren 2an sortu zen Oiar-tzunen, Altza txiki izeneko baserrian. Bertako parrokia San Esteban Lartaun-goan bataiatu zuten, jaio eta hiru egunetara. Guraso zituen Pedro Mendiburu Olaskoaga eta M^a Juana Olano Olaziregi, oiartzuarrak biak.

Sebastian zazpi senidetan zaharrena zen. Hona haren ondotik sortu ziren sei senideen izenak eta bataio egunak: Maria Ignazia (1710.08.12), Juan Antonio (1712.04.12), Juan Antonio, berriz, (1714.05.30) —aurrekoa hil ondoren jaioko zen eta haren izena



Altza Txiki baserria, Sebastian Mendibururen sortetxea. Oiarzun



jarriko zioten—, Maria Josefa (1715.01.17), Ana Franziska (1718.08.28) eta Pedro Jose (1721.05.19). Azken hau ere jesuita, Sebastian bezala; 36 urte zituela hil zen.

Gorputzez sendoa zen Sebastian, handia eta itxura onekoa, aurpegi zuri-gorria, «gipuzkoarren antzera». Izaeraz, berriz, esku-zabala, orekatua, aise asaldatzen ez zena, eta, apala ere bai. On Manuel Lekuona herrikide eta 1970 arte euskaltzainburu izan zenak Mendibururen heriotzaren bigarren mendeurrena zela eta Oiartzunen egin zituzten ospakizunetan honakoa esan zuen, Aita Mendibururen lehen liburu argitaratua hizpidean zuela:

Alabantzi aundiak ematen zizkion, izan ere, Aita Larramendi'k Mendiburu'ren liburuari. Eta gure Aita Mendiburu kezketan sartu zan. Arrokeria geixko ote zan, alegia, bere liburuaren lenengo orrialdean, oitura ala zan arren, alako alabantziak jartzea. Gure Aita oyar-tzuarra ez bait zan, bere izatez, alako protagonismo-zalea. Orregatik, aren lenengo asmoa, Karta alabantzioso ura ez argitalzea izan bide zan. Bañan, arrazoibide guziak alkartuta, azkenean

burua baiezkorra makurtu bear izan zuan. (Lekuona, 1982).

BIDEGILE ZUHURRA

Lekuona zaharrak ahotan duenari kasu egiten badiogu, Mendibururen beste ezau-garri baten berri ere izango dugu: besteren arreta bereganatu ez ezik, itsumustuan jokatzea ere ez zuen maite. Bidea urratzen ari zela ohartuta, bidegile zuhurrak ohi duen kezka bizi izan zuen lehen liburua argitaratzean. Larramendik, berriz, oiartzuarraren liburuaren gorazarre erabatekoa den gutun-hitzaurre horretan («Esan begit zeinetan Jesusen Bihotzarekiko debozioaren gaia hobeto, ederkiago, gozoroago berezia dagoen, zuzendua eta apaindua») esaten dio ez kikiltzeko («etzaitzatela tontotzarren erausiak ozpindu eta ikaratu»), ateratzeko liburua eta zabaltzeko («Atera ezazu beraz zure liburu hori, eta lehen baino lehen bana ezazu euskal-errietan»), ona besterik ez duela ekarriko («Uste duzun baino on gehiago egingo diozu Euskal Herriari»)..



Sebastian Mendiburu bataiatu zuten ponteak, jaiotza-agiria eta San Esteban elizan dagoen San Sebastianen irudia



Bidegile, bide-urratzaile izatea beste zer-baitetan ere egokitu zitzaion Sebastian Mendibururi. XVIII. mendean Jesusen Bihotzaren Debozia sortu gabea zen. Hor ibili zen bilerak, kongregazioak pizten euskal eta erdal herrietan, beste jesulagun batzuk, horien artean Aita Kardaberraz, lagun zituela.

SINESMEN SENDOKOA, ESTUA

Apala zen Mendiburu, baina apaltasun haren azpian uste eta sinesmen sendoak gordetzen zituen: bere iritziei tinko eus-

ten ere bazekien, aurrean zuena Aita Manuel Larramendi bera bazen ere. Izan ere, Mendiburu, gai batzuetan behinik behin, ez zen aise makurtzen besteren esanetara.

Estu samarra ere bazen. Esate baterako, jai-egunetako aisialdian jendeak zer egin eta zer ez, Larramendik eta Mendiburuk liskarbide gaitza izan zuten. Aita Mendiburuk —Lesakan 28 urtez dantzak galarazita eduki zituen Aita Jose Antonio Mikelestorenak eta beste batzuek bezalaxe— nahiago bide zuen jendeak denbora ematea kongregazio edo bileretara joanez dantzan eta olgetan baino. Honela dio Aita Perez Goyenak pasarte aski argigarrian:



Oiartzungo udaletxea

Ikasle guztiak bat etorri ziren bilera sortu behar zutela eta horrela lehen gazteak denbora pasarako zituzten ikuskizun eta joko arriskutsuak baztertu zituzten. Oso hezigarria zen hiritar guztientzat gazteak igande eta jaiegunetan ikustea elizan abesten Aita Mendiburuk berak Gonzaga aingerutiarrari sortutako bozkariozko kantuak.

HIZLARI BIKAINA

Otoitz egiten ematen zituen eguneko ordu asko eta asko. Ez zuen atsedeen handirik hartzen; bere buruari gogor ere egiten zion. Baina ez zuen bizitza otoitz egitera



Lartaungo San Estebanen parroikia

murriztu: otoitza eta ariketa batu zituen, batik bat han eta hemen misioak eginez.

Gainera, hizlari ona izateko beharrezko dohainak zituen: hizkuntza errotik menderatzen zuen, etorri handikoa zen, hizketan argia eta trebea, eta itxura atsegin eta ahots sarkorraren jabea. Oso hitzaldi entzutetsuak egiten zituen.

Hizlari onen moduan, mintzoa entzuleari egokitzen bazekien, Iruñeko San Zernin elizara joaten ziren neskame-morroieusaldunak nahiz Azpeiti-Azkoitietako jauntxo eta zaldunak izan (besteak beste, Enparan, Iturriaga, Peñafloredako kontea, Narroseko markesa...). Hizlari onek, era berean, ahoz esaten dutena adina zaintzen

dituzte keinuak, begirada...; hitz batean, hitzik gabeko komunikazioa. Aita Mendibururi ere ez zitzaion komunikatzeko era hori oharkabean itzurtzen: predikatzen zuenean pulpitua ongi argiztatzeko ardura zuen, elizan zirenek predikariari entzun ez ezik ikusi ere ongi ikusi ahal izateko. Jendaurrean euskaraz mintzatzeko zuen trebeziak esanarazi zion Azkoitiko zaldun bati Zizeronek berak latinez ez zuela asmatuko gauza sakonak adierazten Mendiburuk euskaraz esaten zituen bezain ongi. Hortik datorkio «Zizeron euskalduna» izengoitia.


GAZTELAN (1725-1734): APAIZTU AURREKO IKASBIDEA

Hamazazpi urte betetzeko zituela, 1725eko ekainean, Oiartzun utzi eta Loiolara jo zuen jesuita sartzeko asmoarekin. Handik bi hilabete esketara, irailaren 5ean, baiezkoa erantzun zioten, onartzen zutela jesulagun anaia ikasle moduan. Orduantxe hasi zen Sebastian Manuel Mendibururen eliz bizi-tza.



Kongregazio edo bileren arauak

Lehenago Agustin Kardaberazek eta Manuel Larramendik egin bezala, Sebastian Mendiburuk ere Jesusen Lagundiaren Villagarcia-ko ikastetxera joan behar izan zuen jesulagunek egin behar izaten duten bi urteko nobizio-aroa egitera. 1725etik 1727ra Gaztelako herri horretan bizi izan zen. Epe horren buruan «zinitzak» egin (hots, lehen ikastaldiaren bukaeran jesulagun izan nahi zuela berretsi) eta zuzenean Burgosko ikastetxera igorri zuten. Burgosen urtebete besterik ez zuen egin (1727). Gramatika irakasten aritu zen urte horretan, 19 urte besterik ez zuela.



Jesulagun ikasketak osatzeko jesuitek Filosofia eta Teologia ikasketak egin behar izaten zituzten. Mendiburuk Medina Kanpoko (Palentzia) jesulagunen ikastetxean egin zituen Filosofiakoak, 1728tik 1730era arteko urteetan. Azken urtean amona hil zitzaion, 1730eko abuztuan.

Aita Patxi Altunak Mendiburuz egin dituen lan estimagarri eta ezin utzizkoetan, beste gauza jakingarri askoren artean, jasotzen ditu Sebastian Mendiburuk eta osaba eta aitajauna zuen Sebastian Lekuonak elkarki idatzi zizkioten gutunen zati batzuk. Gutun horiei esker dakigu Sebastian Mendiburu gaztea ondoezik ibili zela, baita Gaztelako herri horretan «eritasun aldi epidemizko bat» izan zela ere. Zein sendagai hartzen zuten ere badakigu: jesuitek asko erabiltzen zuten San Ignazioren hazia. Estriknina eta bruzina duen Ameriketako landare bat da, sukarraren kontrakoa eta digestio arazoetarako hartzen dena. Gaixoaldiak gaixoaldi, azkenean, Mendiburuk azterketa guztiak gainditu zituen.

1731n, Filosofiako hiru urteak amaituta, Salamancako Errege-Ikastetxera joan zen lau urte irauten duten Teologiako ikaske-

tak egitera. Hirugarren urtea amaituta, 1734ko azaroaren 7an apaiztu zen Sebastian Mendiburu, 26 urte zituela.

San Ignaziok agindu zuen jesulagun apaiztu berriek apaiz-lanetan hasi aurretik beste urte bat egin behar zutela ikasten eta gogo-jardunak egiten: hirugarren probantza deritza azken urte horri. Mendiburuk ere halaxe egin behar izan zuen. 1735ean Salamanca utzi eta Valladolideko San Ignazio ikastetxean egin zuen.

JESULAGUNA APAIZ-LANEAN (1736-1767)

Itxura guztien arabera, ikasketak bukatu berrikan Loiolara bidali zuten agintariek Aita Mendiburu apaiz-lanak egitera: 1736ko Garizuma Azkoitia inguruan eman zuen. Baina ez zuen denbora luzean iraun Gipuzkoako lurretan, laster asko eman baitzioten Nafarroara joateko destinoa.

Iruñeko jesuiten ikastetxean zen irakasle 1737an: Gramatika, Logika, Fisika, Metafisika, Teologia... Bestek lehenago jorratua,

Lehen idazlana,
latinez.
1743koa



sakondua irakasten eta baita berak irakaslanean laguntzeko eskuliburu edo tratatuak idazten ere; orduan ohi zen bezala, latinez. Gisa honetako hainbat lan egin zituen, guztiak ere Filosofia eta Teologia gai zutela. *Cursus philosophici prima pars continens physicam* lehen liburua idatzi zuen urtean, 1743an hain zuzen, egin zituen azken lau boto nagusiak.

Irakaskuntzarako ez ezik, beste eginkizun batzuetarako ere egoki ikusiko zuten nagusiek, 1741ean, Iruñean zela, etxeko ministro edo nagusiorde izendatu baitzuten. Baina horretan baino gehiago, Mendiburu beste jardun batean nabarmendu zen batetik bat: misiogintzan.



Jesusen bihotzaren custodia.
Mendiburuk Oiartzungo elizari emana

Iruñeko lehen egonaldian, ikasturtea bukatu eta oporrak hartu beharrean, herriz herri ibili zen misioak egiten. Loiolako 1736ko aldi motzean ere misioetan ibili zen Gipuzkoan barrena: kostaldean, Tolosan, Azpeitian, Donostian, Oiartzunen... Sermoiak eta misioak egiten, Jesusen Bihotzaren Debozioa piztu nahirik, misioen euskarri eta iraunarazgarri ziren kongregazioak sortzen, dantzen kontra mintza-

tzen. Eta bere horretan ibili zen 30 urte luzetan.

Iruñean zela, Aita Probintzialak agindu zion Loiolara joateko: 1745eko abenduaren 14an iritsi zen San Ignazioren sortetxera, 37 urte zituela. Urte horixe darama azalean Mendiburuk ondutako bigarren liburu latinezko *Tractatus de anima* izenekoak.

LEHEN EUSKAL LANA: JESUSEN BIHOTZAREN DEBOZIOA (1747)

1745ean San Ignazioren jaiolekuan zen Mendibururen lehengusu Jose Lekuona



Agustin Kardaberaz, Sebastian Mendiburu, Manuel Larramendi

oiartzuarra eta batez ere, hantxe suertatu ziren, teilatupe berean, Hegoaldeko euskal letretan urrezko aztarna utzi duten Manuel Larramendi andoaindarra, Agustin Kardaberaz hernaniarra eta Sebastian Mendiburu oiartzuarra. Manuel Larramendik hiztegi handia argitaratu zuen 1745eko urte gogoangarri berean bakarrik izan zuten aukera elkarrekin bizitzeko bestela hain lotuta dauden hiru jesuitok.

Loiolako bederatzi hilabeteko lanaldia hagitx emankorra gertatu zitzaion Mendibururi: hantxe mamitu zuen bere lehen euskal liburua, *Jesusen biotz maitearen debozioa*, 1747an lehen aldiz argitaratu zena. Baina 1746ko urriaren 3an nagusiek atzera ere Iruñera bidali zuten.

IRUÑEA (1746-1755)

Nafarroako hiriburuan, berriz ere, irakasle —Teologiakoa batez ere— aritu zen bederatzi urtez, 1755 arte. Baina, aldizka, beste ardura batzuk ere hartu behar izan zituen bere bizkar: Erretorearen kontseilaria hiru urtez (1750-1753), apaizen kon-

tzientzia arazoak argitzeko zuzendaria, jesuiten etxeko elizan aitor-entzulea, San Luis Gonzagaren Kongregazioko ardura-duna... Eta horrekin guztiarekin batean, lehen bezala, sermoiak eta misioak egin, kongregazioak sortu eta bultzatu fedea, debozioa jendartean zabaldu. Iruñea bi-zitoki zuela, misioak egitera ateratzen zen Gipuzkoara, Nafarroara. Han zela galdu zituen lehenbizi ama, 1747ko urtarrilaren

9an (68 urte zituela), eta gero aita, 1753ko abuztuaren 12an (81 urterekin).

MADRIL (1755-1756)

Irakaskuntza utzia eta fedearen bestelako zabaltze-lanetan zebilela, 1755ean nagusiek agindu zioten Madrila joateko. Iruñean frantsesek San Ignazio zauritu zuten



Loiola



leku berean Gogo-jardunak egiteko etxea altxatzeko baimena nahi zuten jesuitek eta hori lortzera igorri zuten Mendiburu. Urte eta erdi eman zuten Madrilen Mendiburuk eta egonaldi horretan astia hartu zuen euskal eliz gizonak aspaldi samarretik misioetan egin zioten eskeari erantzuteko: egin zezala, alegia, otoitz egiteko liburu-
ren bat euskaraz. Madrilen zela, jarri eta hamar bat egunez jo eta su arituta burutu zuen handik urte gutxira (1760an) argitaratu zuen bigarren euskal liburua: *Jesusen amore-nequeei dagozten cembait otoitz-gai* lan handia.

IRUÑEAN, AZKEN ALDIZ (1756-1767)

Madrilgo eginbeharrak kitatuta, 1756ko Eguberrietarako Iruñean zen. Lehengo zereginetara itzuli zen, irakaskuntzara izan ezik; alegia, berriz ere elizako lanetan lagundu, erretorearen kontseilari izan, kongregazioez arduratu, jende askoren aitor-tzak entzun... Eta misioak egin batez ere, Nafarroan, Gipuzkoan, Euskal Herriko Iparraldean; baina Bizkaian eta Araban,

antza, ez. Euskaraz eta gaztelaniaz egiten zituen. Esate baterako, Garesen eta Tafallan erdaraz egin zituen. Misio ugari egin eta kongregazio asko sortu zituen.

1764ko bukatua bide zuen kristau dotrina luzea prestatzeari ere eskaini zion denbora. Lan horretan Mendiburuk berriz ere ez zuen etsi nahi izan dantzen kontra idazteaz eta, horren ondorioz, Larramendi lagundikidearen haserrea piztu zuen: «Oiantzuar hisitia, burugogorra... setoso txarra... inoiz ere baino sutuagoa eta amorratuagoa zaudena... zentza zaitez bada», bota zizkion. Auziak auzi, Mendiburuk ez zuen lan hori argitaratua ikusterik izan, erbesterako bidea hartu behar izan baitzuen.

ERBESTEA. ITALIAN (1767-1782)

Portugalgo (1759) eta Frantziako (1763) agintariak egin bezala, Espainiako errege Karlos III.ak ere 1767ko apirilaren 2ko agiri batez agindu zuen Espainiako erreinu osoan (Ameriketako koloniak barne) bizi ziren 6.000 inguru jesuitek lur haietatik alde egiteko. Mendiburu, Kardaberaz,



Bologna. Mendibururen azken bizilekua


Elkanoko Lizarraga eta gainerako jesuitek zeukaten guztia hemen utzita, soinean zeramaten besterik ez zutela eta norantz ez zekitela bere bizilekuak utzi behar izan zituzten. Egun batzuk Donostiako presondegian eman eta itsasontzian sartu zituzten eta Italiarantz bidali. Egunak itsasoan egin eta gero, Vatikanoraino iritsi eta han ez zituztela onartuko eta Korsikarantz lekutu zituzten. Pentsatzekoa denez, ez zuten oso itsasaldi ez lehorraldi samurrik bizi izan.

Bolognatik gertu dagoen auzo batean hartu zuten bizitokia Mendiburuk eta beste lagun jesuita batzuek. Eliz bizitza egiten ohituta zeuden gizon haiek arras aldatu behar izan zuten bizimodua, 1773an Klemente XIV.a Aita Santuak jesuitei erabat debekatu baitzuen konfesatzea, predikua egitea, eskolak ematea... Mendiburuk urte horiek ikasten, otoitz egiten, penitentzia egiten eta idazten eman zituen. *Igande eta fest-egunetaraco iracurraldiac*, Mendiburuk argitaratuta ikusteko zoria izan ez

zuen, 1982an Patxi Altunak lehen aldiz argitaratu zuena, eta beste hainbat lan (gaztelaniaz ere bai) erbestealdian ondu zituen.

Italiarako ihesaldiak zapuztu zituen Mendiburuk ernaldurik baina sortu gabe zituen hainbat ekimen. Besteak beste, Iruñean Gogo-jardunak egiteko etxea eta orduan «Nobleen Mintegia» esaten ziotena eraikitzea eta bukatua zuen dotrina luzea, Larramendirekin sesioan aritzera

eraman zuena, argitaratua ikusi ahal izatea. Mendiburuk ez zuen sorterriarekiko lokera eten —euskal literaturan bere tokia duen Jaun Bautista Agirre Asteasuko erretoarekin gutun bidezko harremana izan zuen—, ez sekula galdu Euskal Herrira itzultzeko itxaropena: itzuli eta lehengo lanei ekiteko gogoz bizi zen. Ez zuen lortu, ordea, 1782ko uztailaren 14an hil baitzen, Bolognan, Euskal Herria berriz ikusi gabe.



Gaztelaniaz egindako langai batzuen eskuizkribuak

Idazlanak

IRITSI ZAIZKIGUN IDAZLANAK

Ez dago zehazki jakiterik zenbat eta zein lan idatzi zituen Sebastian Mendiburuk, mende hauetan —eta batik bat jesuiten bizitzetan— izan diren hainbeste gorabehera direla medio. Lanetako batzuk gure eskuetara iritsi dira; beste batzuk ez dira iritsi, baina haien berri badakigu Mendiburuk berak edo beste idazle batzuek iritsi zaizkigun lanetan aipatzen dituztelako. Guztiarekin ere, lekukorik ez dutenok gaur-gaurkoz galdutzat eman beharko dira.

Gure eskuetara iritsi diren lanetako batzuk bizi artean argitaratuta ikusteko zo-

ria izan zuen Mendiburuk; behin baino gehiagotan argitaratuta ikusi ere. Beste batzuek, berriz, ez zuten moldiztegirako bidea hartu harik eta hil zeneko bi mende igarota Manuel Lekuona, Koldo Mitxelena eta —buruen-buruenik euskal idazle klasikoen berreskuratzaile sutsu— Patxi Altunak Sebastian Mendibururen lanak denon eskuetan jartzeko modua egin zuten arte. Bestetzuek eskuizkribu diraute oraindik ere.

Mendiburuk batez ere euskaraz eta latinez idatzi zuen; helburuaren arabera aukeratu zuen adierazpidea. Latinera jo zuen irakaskuntzarako, eta euskarara eskolatik kanpoko kristauen hezibiderako. Gaztela-



Lanak latinez

niaz ere idatzi zituen argitaratu ez diren lan batzuk: Gogo-jardunak, misioak egiteko langaiak...

1753: *Tractatus theologicus de merito vitae aeternae*; 1754: *Tractatus theologicus de meritis Christi Domini*...

LATINEZ EGINAK


EUSKARAZ IDATZIAK

Lehen lanak latinez egin zituen. Mendiburuk eskolak eman zituen urte askotan eta eskola haietarako tresna izateko prestatu zituen latinezko tratatu edo testu-liburu modukoak. Liburuotako gaia beti ere da Filosofia eta Teologia. 1743: *Cursus Philosophici Prima Pars continens Physicam*; 1745: *Tractatus de anima*; 1749: *Tractatus de Fide divina*; 1750: *Tractatus theologicus de Spe et Charitate theologicis*; 1751: *Tractatus theologicus de aeterna hominis beatitudine*;

Mendiburuk ez zuen idatzi literatura helburu zuela, ez zen literaturagilea, eta ez zuen euskaraz idatzi euskara goresteko, ez zen euskararen apologista. Beste era bateko jomugak bultzatu zuen idaztera: fedeak, erlijioak. Elizgizon euskalduna zen eta bizi zuen egoerak kezkatzen zuen. Apenas zegoen erlijio libururik euskaraz; are gutxiago Hegoaldean. Nola piztu kristauen buru-bihotzetan deboziorik predikariek ez bazieten hitz egiten beren eguneroko



Jesusen biotz maitearen debozioa (1747). Lehen euskal lana



Manuel Larramendi, akuilaria

hizkuntzan? Guztiz beharrezkoak zituzten predikariak, lehen-lehenik, eta gainerako kristauek ere bai bere hizkuntzan idatzitako lanak.

Eginbide horretan ezin aipatu gabe utzi daiteke Aita Manuel Larramendi Gara-gorri jesulaguna (1690-1767), Larramendi-ren bultzadaz hasi baitzen loratzen inoiz ez bezala euskal literatura Hego Euskal Herrian. Bere garaikoak euskaraz idaztera hitzez bultzatu ez ezik, tresnak ere eskaini zizkien; beste guztien gaineratik, *El imposible vencido* gramatika (1729) eta *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín* hiztegia (1745). Mendiburu, Karda-

beraz eta beste, neurri batean edo bestean tresna horiezaz baliatuz, buru-belarri aritu ziren andoaindarraren asmoak egitate bihurtzen.

ARGITARATUTA IKUSI ZITUENAK

Lehen euskal liburua 1747an lehen aldiz argitaratu zuen *Jesusen biotz maitearen debozioa* lan laburxkoa da. Edizio bat baino gehiago izan ditu. Mendiburu bizi artean 2 aldiz argitaratu zuten, hirugarren edizioa Aita J. I. Aranak atondu zuen, 1882an, Mendibururen heriotzaren lehen men-

deurreneko ospakizunen itzalean. Gerora edizio gehiago ere izan ditu. Orixeren us-tez, hauxe da Mendibururen liburu ede-rena, «idaztankeraz eta euskalkiz».

Liburu honetako hitzaurrea, Mendiburuk irakurleari zuzentzen dion atala, txit argi-garria da, alde askotatik. Lanari ekiteko arrazoia eta helburua garbi esanak daude: Mendiburuk adierazten du zer dela eta ekin dion idazteari. Euskaldunek ez dute Jesusen bihotzaren debozioaren berririk euskaraz eta bitarteko hori jarri nahi izan die eskura. Esan bezala, predikariek eska-tu diote eskuetara diezaien euskaraz ongi aritzeko lagungarria. Gainera, hainbeste nekerekin sortutako kongregazio-bilerek ez dute iraungo iraunarazteko lagungarri

diren otoitz egiteko liburuak izan ezean, eta ereindakoa alferrik galduko da.

Idazteko arrazoi-helburuak ez ezik, itzul-penean zein oztopo izan dituen eta nola jokatu duen ere ederki azaltzen du oiartzuarrak. Ez du liburu hau hutsetik sortu. Jesusen Konpainiako Aita Juan Croisetek erdaraz idatzia hartu du oinarri eta li-buruaren egiturari eutsita, bertatik me-ditazio edo otoitz-gaiak hartu eta mamia euskaldunentzat egokitu ditu. Ez du hi-tzez hitz itzuli nahi izan.

Batez ere idazteko hizkera bera hautatu eta egokitu behar izan du, bai lexikoan, bai hizke-ra-mailan. Tradizio idatzirik ia ez duen bere euskalkian idazten du, giputz-nafarreran,



Jesusen amore-nekeei dagozten cembait otoitz-gai (1760)



baina ulerterraztasuna burutik kentzen ez duela, bai baitaki hitz bat beste baten ordeztu akeratzeak ekar dezakeela euskaldun multzo batek ez ulertzea. Horregatik saiatu da hiztegi kontuetan giputzak eta nafarrak antzekoen dauzkaten hitzak aukeratzeko eta behar izan duenean ere erdaratik mailegatzeko (horregatik ezin jo izan du barra-barra Larramendiren hiztegi asmatziora). Hizkeraren maila ere egokitu behar izan dio euskaldun irakurleari: «jaitsi» behar izan du, jatorrizkoaren maila goiari eutsiz gero ez bailukete euskaldunek adituko; euskaldunak, zoritxarrez, ez baitaude euskaraz eskolatuta. Hona Mendibururen beraren aitorra:

Hango gisara bagenekartza hango gauzak, ez bagenekartza bezala izango lirateke eskolarik ez duten asko euskaldunentzat. Neke handirik gabe nork nahi adi ditzakeen moduan ipini ditut, nere ustez, han modu eder goratuan, gizon adituentzat eginak bezala daudden gauzak.

Hain zuzen ere, ezaugarri hauxe, ulerterraztasuna, garbitasuna, euskararen legeak barren-barrendik ezagutzeak dakarkion




Aita Sebastian Mendibururen idazlan argitaragabeak. Patxi Altunaren edizio kritikoa

jario eta txukuntasuna goraiatu izan dute gerora euskal literaturaren kritikariek, nahiz batzuen ustez Mendibururen idazkera geza samarra gertatu, beste euskal autore batzuen aldean.

Bigarren lanari ekiteko arrazoia lehenaren osagarri eta euskarri izatea da izan ere: «kongregazioen kargudunei lagundu nahiez eta beste euskaldun guztien onerako hasi nuen hiru liburu handiskotan aurki-

tzen diren otoitzgaietako lana». Madrilgo egonaldian du aukera burutzeko Jesusen amore-nequeei dagozten cembait otoitz-gai 1760an argitaratu zuen lan mardulak. Bi argitaratzeko modu izan zituen hasieratik bertatik, hamaika liburuxka txikitan eta hiru liburu handixkotan. Liburu honek ere argitaraldi gehiago izan zituen. Lau-rogeita zortzi meditazio edo otoitz egiteko gaiak eskaintzen ditu luze eta sakon. Bali-teke garai hartako beste erdal lan batzuen (Aita Luis de la Puenterena?) euskal mol-daera izatea. Liburu hauxe aipatu izan da gehien 1982ko Altunaren edizioko lanak ezagutu arte.

Hirugarren liburua da *Euscaldun onaren viciera, mezaren entzun-vide labor erreza, errosarioco amarrecoen asiera eta cembait bederatz-urren edo novena*. Erbestera jo baino lehen Iruñean argitaratua, 1762an. 1765ean beste argitaraldi bat izan zuen. Debozio liburua da. Bederatziurrenak (Je-susen Bihotzarena, Ama Birjinarena, San Ignazioarena, San Luis Gonzagarena...) eta kantuak biltzen ditu. Gogoeta gai nagusia da Jainkoaren bideak ezkutuak direla eta ustez Jainkoak bat bide batean jarri due-nean eginkizun batean gerta daitekeela bide hori espero ez zen beste zerbaiteta-rako izatea.



Kristau Dotrina.
Mendiburuk idatzia,
Larramendik zuzendu
eta osatua

ARGITARATUTA IKUSI EZ ZITUENAK

Mendiburuk beste eskuizkribu franko ere utzi zituen, argitaratzeko. Batzuk, gaine-ra, lehen esan bezala, galdutzat eman beharko dira seguru aski. Baina gorde ahal izan direnen artean ere badira atalak falta dituzten liburuak; esate baterako, *Irakurraldietako* batzuk eskas dira.

Mendiburu ahanzturatik ateratzen eta bere lanak berreskuratzen egin duen aha-
leginagatik XX. mendearen bigarren er-
ditik hona inor aipatu behar bada, Aita
Patxi Altuna Euskal Filologiako irakaslea,
euskaltzain osoa eta jesuita da horixe. Az-
peitiar honen lan eskergari esker dauzka-
gu gaur eskura bestela, beharbada, izan
zirenik ere jakingo ez genukeen Mendi-
bururen hainbat lan. 1982an argitaratu zi-
tuen, Mendibururen heriotzaren bigarren
mendeurrena zela eta Oiartzungo herriak
eta Euskaltzaindiak egin zioten omenal-
diaren ildoan. Bi liburuki marduletan ar-
gitaratu zituen Mendibururenak batez ere
Loiolako artxiboko zokoetan ongi miatu
eta esku artean zituela aztertu, hausnartu
eta batere lan samurra gertatu ez zitzaion
letraldatu ondoren. Fruitua, bikoitza:

Aita Sebastian Mendibururen idazlan
argitaragabeak. Lehen liburua eta Aita
Sebastian Mendibururen idazlan argi-
taragabeak. Bigarren liburua.

Liburuotan, lehenik, Altunak paratu du
Loiolan aurkitu eta egiletzak makina bat
duda sorrarazi zuen Asteteren dotrinaren
euskal itzulpena, *Kristauaren Dotrina* ize-



Euskal-Erria aldizkariaren
oroigarria Mendibururen
heriotzaren lehen
mendeurrenean.
1882.07.14

nekoa, Mendiburuk Italiara joan baino le-
hen idatzia, Larramendik aldatu, zuzendu
eta osatua.

Italiako atzerrialdi luzean mamitutako
urte guztiko igande eta festa egunetarako
irakurraldi, sermoi eta antzekoak ere hor
daude lehen aldiz argitaratuak, Patxi Altu-
nak jarritako *Irakurraldiak* izenaren pean
bilduak. Jatorrizkoak atalen bat falta du
(bederatziurren batzuk, San Ignazioren
gogo-jardunen azalpen luzeak eta bestek
osatua) eta gehiago faltako zituen On Ma-
nuel Lekuonak eskuizkribuak eskuratu
eta jesuitei Loiolara eraman izan ez balie.

San Frantzisko Xabierren bederatziurrena
ere jasota dago edizio honetan. Gorde ahal
izan den Mendibururen bederatziurren

apurretakoa. 1767an egin zuen, Italiara alde egin behar izan zuten urtean. Altunarena baino lehen bi argitaraldi gutxienez izan zituen, 1880an eta 1922an.

Edizio kritikoaren azken lana Mendiburuk Larramendiri gaztelaniaz egindako gutuna da «Larramendiren zentsurari erantzuna»; testu aski jakingarria hainbat gairen berri izateko: Mendibururen beraren nortasuna, isuria, oiartzuarraren eta Larramendiren arteko harreman gorabeheratsuak, XVIII. mendeko ohiturak, jendeak, herriak...

Mendibururen idazlanen berria bukatzeko beste lan handi bat ekarri behar da hona.

Sebastian Mendiburuk berak aipatzen du 1764ko bukatua zuela hiru liburukiko, ia mila orrialdeko, Kristau Dotrina luzea. Aski buruhauste izan zituen argitaratzeko nagusien baimenak (Larramendirena batez ere) zirela eta ez zirela. Azkenik, irarkolarako prest zegoela, jesuitak deserrira erauzi zituzten eta argitaratu gabe geratu zen. Lan hau oraingoz behintzat galdutzat eman behar da.

Irakurraldiak, gogo-jardunak



Felipe Arrese Beitiaren olerkia

Sebastian Mendibururen itzala

Gaurko begietatik begiratuta —Aita Navarrete eta besteren aspaldi samarreko lanak gutxietsi gabe— bi mugarri nagusi ezarri behar dira Mendiburuk euskal literaturan duen itzalaren eta ospearen zabalkundean: heriotzaren mendeurrena dela kausa Oiartzunen egin zituzten 1882ko eta 1982ko ospakizunak.

1. MENDEURRENA. HIRU EGUNEKO OSPAKIZUNAK

Lehen mendeurrenako ospakizuna Jose Manterola donostiarrak zuzentzen zuen *Euskal-Erria* aldizkariarekin lotuta dago.

Aldizkariaren 1881eko ale batean argitaratu zuten eskea: «Bada garaia hautsa harrotu eta beste hizkuntzetako idazleei egiten zaizkien moduko omenaldiak euskal idazleei ere egiteko; ospakizunak, literatur lehiaketak... antolatu behar dira». Eskeak hurrengo urtean erantzun erabatekoa izan zuen.

1882ko aldizkari bereko orrialdeetan zehatz-mehatz jaso zuten Aita Sebastian Mendibururen omenez Oiartzungo herrian 1882ko uztailaren 14, 15 eta 16an antolatu zituzten ospakizun eta sariketa guztien berri: Meza nagusia, prozesioa, bertsolariak, pilota partidak, bazkaria, danbolinez alaitutako dantzak, Errente-

Marzial Agirreraren igeltsuzko irudia eta Eugenio Azkueren olioizko erretratua. 1882ko omenaldirako eginak



riako eta Irungo musika-banden saioa, gauetz su festa... oso jai handiak egin zituzten. Inguruko eta urrutiko udal askok eta gizabanako ez gutxik diruz ere lagundu zuten ospakizunak egin ahal izateko.


Herriko eta Gipuzkoako agintari nagusiez gain, euskal idazle eta kultura gizon askok hartu zuten parte omenaldian. Idazleek: Pedro Miguel Urruzuno, Antonio Arzak, Felipe Arrese eta Beitia, Manterolak berak... Eskultore-pintoreek: Marzial Agirre eskultore bergararrak (Donostian dagoen Okendoren estatua-ren egileak) Mendibururen igeltsuzko irudia egin zuen, benetako tamainakoa baino handiagoa. Eugenio Azkue margo-

lari gipuzkoarrak Mendiburu gaztearen erretratua olioan margotu zuen. Benigno Orbegozo bilbotarrak ere beste koadro berezi bat egin zion opari Oiartzungo herriari: Gernikako haritzaren hostoak, Hego Euskal Herriko lau lurraldeen armarriak, Jesusen Bihotzaren irudia eta Oiartzungo, Espainiako eta Bilboko armarriak batuta. Musikak ere bere lekua izan zuen. Oraindik ere egun seinaleetan meza nagusian kantatzen duten «Mendibururi» zortzikoa asmatu zuten Antonio Arzakek eta Gisasola Urduñako organistak omenaldirako... Azal beltzeko liburu zuri bat prestatu zuten parte-hartzaileek sinadura eta oharrak jasotzeko.

Literatur sariketako Jose Manterola, Claudio Otaegi eta Antonio Arrue epaileen erabakiz, hirugarren saria «Poztu zaitetz Oyarzun!», On Manuel A. Antia jaun, Urrietako erretoreak eraman zuen eta laugarrena «Corazón Sagrado de Jesús ¡Salva a tus euskaros!» On Juan N. De Oliver Copons, Juan Ramón Jiménez poetarekin harreman estua izan zuen Andaluziako jesuitak. Ez zuten ez lehen, ez bigarren saririk eman.

Poztu zaitetz Oyarzun
 Utzirik tristura,
 Jantzi gala ederrak
 Burutik oñera;
 Gaur guzia izan bedi
 Zugan apañdura,
 Alaitasun ta atsegiñ,
 Pestako modura

 Zorionekoa zera
 Oyarzungo erria,
 Aita Mendiburu da
 Zure seme argia,
 Jesusen Lagundiko
 Onra ta gloria,
 Euskal-erri guziko
 Mixio-gille aundia.
 [...]



«Mendibururi» zortzikoa

Lehen
mendeurreneko
lekukoa



Lehen mendeurreneko hurrengo mende-koetarako bitartean euskal gizartean al-
daketa eta gorabehera gaitzak izan ziren.
Euskal literaturan bereziki garbizaleta-
sunaren eragina sekulakoa izan zen. XX.
mende hasieran sendotzen joan zen uste
haren arabera, erdal kutsua zuen edozer
baztertzea zen. Garbizaleen ustez, eus-
kal literaturako autore klasiko gehienak
erdarak kutsatuak zirenez gero, baztertze-
koak ziren. Gaurko ikuspegitik begiratu-
ta, esan beharrik ere ez dago luze iraun
zuen uste oker horren ondorioak zein la-
rriak gertatu ziren euskal hiztunentzat eta
euskararentzat. Baina Mendiburu, hala
ere, ez zuten guztiz gaitzetsi. Oiarzuarra-
ri aldizka lanetan isurtzen zaizkion «mor-
doilokada» eta «erdarakadak» barkaki-



zun gertatu zitzaizkien garbizaleei, beste
batzuek ez bezala, oiarzuarrak ez bai-
tzuen zabar jokatu hizkuntza kontuetan
premiarik gabe mailegatuz eta, gainera,
sintaxian, adizkietan eta hiztegian oiar-
zuarrak zerabilen euskara jator eta garbia
iruditzen zitzaien.

Ehun urteko aldi horretan Mendiburu
ahaztuta egon zenik ere ezin esan daiteke.
Urrutirago gabe eta besteak beste, Oiar-
zunen, 1922ko abuztuaren 5ean, Rafael

Pikabea (1936ko altxamenduaren ondorioz erbestera joan eta bertan, Parisen, 1946an hil zen) enpresa-gizon eta politikoaren ekimenez Julio Etxeandia Irungo semeak egindako Mendibururen irudi handia jarri zuten herriaren sarreran...

Beste maila batean, Koldobika Eleizalde, Azkuek, Orixek... jesuitaren lanak aztertu zituzten. Euskal literaturaren historiagileek ere Mendibururen lanei ez diete muzin egin. Baina Mendibururen berreskuratzeko osoena, horrela esatea badago, 1982an gertatu zen ezkutuan zeuden lanak moldezko letretan plazaratzearen bitartez.



Julio Etxeandia irundarrak egindako Mendibururen kaleko irudia. Rafael Pikabea eta Lexoti bertsolariaren lekukotasuna



Bigarren
mendeurrenako
omenaldian parte hartu
zuten euskaltzainetako
batzuen sinadurak
Garbuno etxeko
liburu zuri estreinatu
berrian. Iturriotz auzoa,
Oiartzun



2. MENDEURRENA, SORTETXEAN OROITARRIA

1982ko uztailaren 17an Oiartzungo herriak berriz ere bere semea omendu nahi izan zuen eta horretarako Euskaltzaindiarekin batean hainbat ekitaldi egin: Altza txiki, Mendibururen sortetxean oroigarria jarri zuten, Mendibururen kaleko irudiari lore-eskaintza egin zioten herriko neska-mutikoei, Euskaltzaindiak barne bilkura eta agerikoa bertan egin zituen...

Ageriko bilkuran, hain zuzen, Patxi Altuna euskaltzainak Aita Mendibururen lan argitaragabeen edizio kritikoa jendaurrean

aurkeztu zuen. Euskaltzainburu Aita Villasantek, Euskaltzainburu ohi On Manuel Lekuonak, Koldo Mitxelena eta Patxi Altuna euskaltzain osoek hitzaldi jakingarri banatan adierazi zituzten Mendibururen eta aurkezten ari ziren lanen gainekoak.

Koldo Mitxelenak bultzatu zuen sei urte lehenago Patxi Altuna argitaratu gabe zeuden Mendibururen lan guztiak berreskuratu eta guztion eskura jartzera eta baita Patxi Altunak zintzo bete ere. Eskerari erantzunez besterik ere lortu zuen Altunak; Euskal Filologian beste urrats garrantzizko bat egin zuen, ez baitago Filologiarik egiterik testurik ezean. Euskal Filologiaren sortzaile eta habe nagusi biei zor diegu batik bat 1982az geroztik Mendiburuz duguna ordu arte zegoena baino bi halako izatea.

SEBASTIAN MENDIBURUREN ZORIA

«Zizeron» eta «Tulio euskalduna» izan zen bere garaian Sebastian Manuel Mendiburu Olano, Aita Mendiburu. Hizkera



Koldo Mitxelena, Patxi Altuna, Iñaki Irigoien (Oiertzungo alkatea), Juan Plazaola (jesuiten Loiolako Probintziaburua), Xabier Aizarna (Gipuzkoako Diputatu Nagusia), Luis Villasante (Euskaltzainburua), Manuel Lekuona, Jean Haritschelhar. Atzean, omenaldian esku hartu zuten Joakin Mitxelena eta Koxme Lizaso oiartzuar bertsolariak

aldetik txukuna, garbia, euskara jatorraren jabea izatea goraiatu zuten euskal letretan jatortasunari beste ezeri baino garrantzi gehiago ematen zioten aldian. Txukuna, garbia, bai, baina geza, indar gutxikoa, beti-batekoa harrapatu zuten geroago hainbat kritikarik —Mitxelenak barne—, 1982an argitaratu zituzten lanak ezagutu arte.

1982ko edizioa dela medio, Mendiburuz zuten iritzia aldatu beharrean ikusi zuten

ordu arte motel, are aspergarritzat jotzen zutenek. Mitxelenak aitortzen du 1982an argitaratutako lanek, batik bat *Irakurraldiak*, harrituta utzi zutela. Errenteriarrari harrigarria egiten zaio Mendiburuk nola lortu zuen ia hutsetik halako prosa on-tzea, nolako ahalegina egin zuen hiztegia aberasten bere hizkuntza-sormenari eraginez, nola asmatu zuen hizkuntzari halako doinu berriak aterarazten....



Mendiburu erbestean hil zen; bere bizitzako azken hamabost urteak ez zituen egoerarik onenean igaro. Idatzi zituen lan batzuk, asko, argitaratuta ikusteko aukerarik ere ez zuen izan. Baina euskal idazle gutxik izan dute, beharbada, Mendiburuk izan duen zoria: gerokoen oroitzapenean irau dezan ahalegindu denik ez da falta izan. Bi mendeurrenako ospakizun, Oiarzun sorterrian kale baten izena, kaleko

irudia... eta, batez ere, Aita Patxi Altunaren lan eskerhari esker, munduratu zituen lanak sortu zenetik hiru mende geroago oraindik ere irispidean eduki ahal izatea. Horixe dateke idazle batek izan dezakeen zoririk onena: aldiak joan, aldiak etorri, bere idazlanak gerokoei irakur, azter, ikas eta... apika, gozagai gertatzea. Sebastian Mendiburuk zori on hori izan du.



Patxi Altuna, Mendibururen lanen berreskuratzailea

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Loiolako artxiboari
- Oiartzungo Udaleko artxiboari
- Oiartzungo Manuel Lekuona liburutegiari
- Boni Urkizu, Oiartzungo erretoreari
- Rafael Labandibarri
- Hilario Arbelaitzi

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2008ko urria

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Herminio Madinaveitia, 18-pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 978-84-457-2755-3 (Lan osoarena)
978-84-457-2756-0

L.G.: VI-278/08

BIDCGILLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco